Getxo
UDAL EGOITZA
RESIDENCIA MUNICIPAL

Ormetxe, 22
48992 GETXO (Bizkaia)
Tf. 94 403 47 40 - 94 491 04 99
Faxa: 94 403 47 41

| **JESUSEN BIHOTZAREN UDAL EGOITZAKO ARTEZKARITZA-KONTSEILUAK 2018KO IRAILAREN 28AN EGINDAKO OHIKO BATZARREKO AKTA** | **ACTA DE LA REUNION ORDINARIA CELEBRADA POR EL CONSEJO RECTOR DE LA RESIDENCIA MUNICIPAL SAGRADO CORAZON, EL DIA 28 DE SEPTIEMBRE DE 2018** |
|---|---|
| **BERTARATU DIRENAK**<br>**PRESIDENTEA** | **ASISTENTES**<br>**PRESIDENTE** |

**Dña. Elena Coria Yanguas and.**

| **BATZARKIDEAK** | **VOCALES** |
|---|---|

**D. Joseba Arregi Martinez jn.**
**D. Koldo Iturbe Mendilibar jn.**
**D. Alvaro Gonzalez Perez jn.**
**Dña Keltse Eiguren Alberdi and.**
**D. Ignacio Uriarte Gorostiaga jn.**
**Dña. Raquel González Diez-Andino and.**
**D. Miguel Ibabe Botella jn.**
**Dña. Susana de Cos Yañez and.**
**Dña. Susana Andollo González and.**
**D. Enrique Olaso García jn.**
**D. Enrique Prada Olleta jn.**
**D. Ibon Rodriguez Larrinaga jn.**
**Dña. Nerea López Guijarrubia and.**
**Dña. Teresa Escalante Reina and.**
**D. Santiago Sainz Robles jn.**

| **IDAZKARIA** | **SECRETARIA** |
|---|---|

**Dña. Arantza Minguez Trascasa and.**

Aipatutako kideak etorri dira, eta Elena Coria Yanguas andrea presidente dela, batzarra 15:05ean hasi da.

Con la presencia de los vocales reseñados al margen, y bajo la presidencia de Dña. Elena Coria Yanguas, dió comienzo la reunión a las 15:05 horas.

Maite Arraiza Aramendia andreak jankinarazi du ezin izango dela etorri.

Excusa su no asistencia Dña. Maite Arraiza Aramendia.

Presidenteak, gai zerrendarekin hasi aurretik, jakinarazi du EH BILDUk idatzi bat aurkeztu zuela gai zerrendan hiru puntu gehitzeko. Zerbitzu juridikoekin kontsultatu ostean, adierazi du ezin izan direla gehitu; izan ere, ez dira aurkeztu 8

La Presidenta informa antes de iniciar con los asuntos del Orden del Día, de que EH BILDU presentó escrito para incluir tres puntos en el orden del Día. Tras consultarlo con los servicios jurídicos, señala que no se han podido incluir por


• administrazioa.egoitza@getxo.eus • http://www.getxo.eus • C.I.F.: P-9805302-H

eguneko epean, Administrazio Publikoen eta Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearekin bat datozen estatutuek xedatutako moduan. EH BILDUk uste du presidenteak ahalmena duela puntu horiek gehitu edo ez erabakitzeko, ezarritako epea gorabehera, are gehiago kontuan izanda lotura zuzena dutela onetsi beharreko proposamenekin.

no estar dentro del plazo de 8 días hábiles que marcan los Estatutos en concordancia con la Ley 39/2015, de 1 de octubre, relativa al Procedemiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas. Desde EH BILDU creen que, a pesar del plazo establecido, la Presidenta tiene potestad para decidir si incluirlo o no, teniendo en cuenta además la relación directa con las propuestas llevadas a aprobar.

Presidenteak erantzun du epea behar den zorroztasunarekin aplikatu dela. Era berean, adierazi du gaia sarritan landu dela eta egoitzara bertara etortzeko gonbidapena ere egin zaiela eta uko egin diotela. Halaber, galdetu die Errektoreen Kontseiluaren hurrengo bileran gehitu nahi duten. EH BILDUk erantzun du langileei galdetuko dietela.

La Presidenta responde que el plazo se ha aplicado con el rigor debido. Señala también que este tema ha sido tratado en varias ocasiones y que además se les ha invitado a acudir a la propia Residencia, cosa que han declinado. Así mismo, les pregunta si desean incluirlo en la próxima reunión del Consejo Rector. EH BILDU responde que preguntarán a los trabajadores.

GUK bat dator EH BILDUk esandakoaren % 100arekin. Eskaera politikoa zein izan den ez dela ulertu pentsatzen dute.

GUK suscribe el 100% de lo dicho por EH BILDU. Sienten que no se haya entendido cuál ha sido la petición política.

CIUDADANOSek aipatu du interesgarria izango litzatekeela langileak etortzea.

CIUDADANOS comenta que habría sido interesante que vinieran los trabajadores.

Presidenteak dio ekarpenak jasoko direla.

La Presidenta dice que se recogerán las aportaciones.

**20.- Aurreko bilerako akta onestea**

2018 ekainaren 19ko batzarreko akta onetsi da.

**20.- Aprobación del acta de la reunión anterior**

Se aprueba el acta de la reunión del 19 de junio de 2018.

**21- Getxoko Udal Egoitzako Lanpostuen Zerrenda eta Plantilla Organikoaren aldatzeko proposamena: lanpostu berria sortzea eta lanaldia areagotzea.**

Presidenteak adierazi du lanpostua sortzea egoitza birgaitzeko proiektuaren baitan dagoela, aurrez aipatu izan den moduan. Horrez gain, lanpostu berriaren zereginak laburbildu ditu eta proiektuarentzako duen garrantzia azpimarratu du.

Bestalde, presidenteak jakinarazi du gizarte langilearen lansaioa handitzearen arrazoia dela

**21.- Propuesta de modificación de la Relación de Puestos de Trabajo y de la Plantilla Orgánica de la Residencia Municipal de Getxo: creación y ampliación de puesto de trabajo.**

La Presidenta señala que, como ya se ha comentado en otras ocasiones, esta creación de puesto está enmarcada dentro del proyecto de reforma de la Residencia Resume las funciones del nuevo puesto y remarca la importancia del mismo en el proyecto.

Por otro lado, la Presidenta informa que la ampliación de la jornada laboral de la Trabajadora

Getxo
UDAL EGOITZA
RESIDENCIA MUNICIPAL

Ormetxe, 22
48992 GETXO (Bizkaia)
Tf. 94 403 47 40 - 94 491 04 99
Faxa: 94 403 47 41

eguneko arreta zerbitzuak lan bolumen handiagoa sortzen duela.

Social obedece al mayor volumen de trabajo generado por el Servicio de Atención Diurna.

Fiskalizazioa positiboa izan da, eta enpresa komitearen jarrera, aldekoa.

La fiscalización ha sido positiva y la postura del Comité de Empresa ha sido favorable.

GUKek sortzea eta handitzea banatzeko aukerarik dagoen galdetu du. Presidenteak ezetz erantzun du. GUKek aurkako botoa emango du; izan ere, ez dute beharrezkotzat jotzen giza baliabideen kudeaketako teknikari baten figura, lanpostuak amortizatzeko joera dagoela dirudi eta. Ez dute ulertzen zein balio izan dezakeen, langile gutxiago egongo badira. Gainera, nahi lukete langile funtzionarioak sortzea, eta ez lan itunpekoak. Bestalde, gizarte langilearen lansaioa handitzeari baiezko botoa eman nahi liokete.

Preguntan desde GUK la posibilidad de separar la creación de la ampliación. La Presidenta responde que no. GUK votará en contra porque no ven necesario la figura de un técnico en gestión de recursos humanos dado que parece que hay una tendencia a amortizar plazas. No entienden su labor si va a haber menos trabajadores. Además les gustaría que la creación fuera de personal funcionario y no laborales. Por otro lado, les gustaría votar sí a la ampliación de la jornada de la Trabajadora Social.

EH BILDU lanpostu berriak sortzearen alde dago. Baiezko botoa eman nahi lukete, baina ez dakite zein den etorkizuneko plangintza. Ulertzen dute amortizazioak eta lanpostuak sortzea plan baten barruan egongo direla, baina ez dituzte datuak.

Desde EH BILDU están a favor de que se creen nuevos puestos. Les gustaría votar que sí, pero no conocen cuál es la planificación de futuro. Entienden que las amortizaciones y creaciones estarán dentro de un plan, pero no tienen los datos.

CIUDADANOSek aurkako botoa emango du, lanpostu berriari atxikitako euskarako hizkuntza eskakizuna nahitaezkoa delako. Merezimendua izan beharko litzatekeela uste dute.

Desde CIUDADANOS votarán en contra dado que el perfil lingüístico de euskera asignado al nuevo puesto es preceptivo. Creen que debería ser mérito.

GUKek azpimarratu du plangintza bat egin eta erakutsi behar dela.

GUK incide en que hay que hacer una planificación y exponerla.

Presidenteak adierazi du plangintza 2017tik azaldu dela. Zuzendaritza Kontseiluaren 2017ko maiatzeko ohiko bilkura gogorarazi du. Hasieratik eman da urrats guztien berri.

La Presidenta señala que la planificación se ha explicado desde 2017. Remite a la sesión ordinaria del Consejo Rector de mayo de 2017. Se ha ido informando de todos los pasos desde el principio.

Presidenteak proposamena bozkatzeko agindu du, eta handik honako emaitza hau atera da: EAJ-PNVren aldeko sei boto, PSEren aldeko beste bat, PPren 3 abstentzio, EH BILDUren 3 abstentzio, GUK-GETXOren kontrako 3 boto eta CIUDADANOSen kontrako boto bat.

La Presidenta somete a votación la propuesta que obtiene el siguiente resultado: 6 votos a favor del PNV, 1 voto a favor del PSE, 3 abstenciones del PP, 3 abstenciones de EH BILDU, 3 votos en contra de GUK-GETXO y 1 voto en contra de CIUDADANOS.

Horren ondorioz, eta presidenteak hala proposatuta, gehiengo batez honako hau erabaki da

En consecuencia, y a propuesta de la Presidenta, se acordó por mayoría el siguiente


• administrazioa.egoitza@getxo.eus • http://www.getxo.eus • C.I.F.: P-9805302-H

**ERABAKIA**

**LEHENENGOA.-** Aldatzea Getxoko Udal Egoitzako lanpostuen zerrenda eta plantilla organikoa, eduki honekin:

**LANPOSTUEN ZERRENDA:**

.- Giza Baliabide-Kudeaketako Teknikari lanpostu berria sortzea, A2 sailkapen taldearen barruan, derrigorrezko 3. hizkuntza-eskakizunarekin eta 74 lanpostu zenbakiarekin. Lanpostu horren sorreraren berri eman zitzaion Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikako Sailari, eta hark 2018ko ekainaren 11n aldeko txostena egin zuen.

- Gizarte langilearen (61 lanpostu-zenbakia) lanaldia 80etik % 100ra areagotzea, zerbitzua hobetzeko.

**PLANTILLA ORGANIKOA**

PLANTILLA ORGANIKOAN LANPOSTUAK SORTZEA EDO ALDATZEA: LANGILEAK

.- Giza Baliabide-Kudeaketako Teknikari lanpostu bat (1) sortzea, A2 sailkapen-taldearekin eta Lan Harreman eta Giza Baliabideetako Graduarekin edo titulu baliokidea.

.- Gizarte langilearen plaza dedikazio osora aldatzea.

**BIGARRENA.-** Lanpostuaren Zerrendaren lanpostuen hornidura mota indarreko legezkotasunera moldatzea eta lanpostu batzuk zuzentzea, normalizatuak izango dira eta.

**HIRUGARRENA.-** Lanpostuen zerrenda berria eta plantilla organikoa osorik argitaratzea Bizkaiko Aldizkari ofizialean

**ACUERDO**

**PRIMERO.-** Modificar la Relación de Puestos de Trabajo y Plantilla orgánica de la Residencia Municipal de Getxo con el contenido que se expresa a continuación:

**RELACIÓN DE PUESTOS DE TRABAJO:**

.- Crear un nuevo puesto de Técnico en Gestión de Recursos Humanos dentro del grupo de clasificación A2, con un perfil lingüístico 3 de carácter preceptivo y nº de puesto 74. La creación de dicho puesto se ha puesto en conocimiento del Departamento de Gobierno Vasco de Política Lingüística que informó positivamente en fecha 11 de junio de 2018.

.- Incrementar la jornada de trabajo de un 80 a un 100% de la Trabajadora Social con nº de puesto 61 con el fin de mejorar el servicio.

**PLANTILLA ORGÁNICA**

CREACIONES O MODIFICACIONES DE PLAZAS EN LA PLANTILLA ORGÁNICA: PERSONAL LABORAL

.- Crear una (1) plaza de Técnico en Gestión de Recursos Humanos con un grupo de clasificación A2 y con una titulación de Grado en Relaciones Laborales y Recursos Humanos o equivalente.

.- Pasar a dedicación completa la plaza de Trabajador Social.

**SEGUNDO.-** Adaptar la forma de provisión de los puestos de trabajo de la RPT a la legalidad vigente y corregir algunos puestos que pasan a ser "normalizados".

**TERCERO.-** Proceder a la publicación de la nueva Relación de Puestos de Trabajo y plantilla orgánica completas en el Boletín Oficial de Bizkaia.

Getxo
UDAL EGOITZA
RESIDENCIA MUNICIPAL

Ormetxe, 22
48992 GETXO (Bizkaia)
Tf. 94 403 47 40 - 94 491 04 99
Faxa: 94 403 47 41

**22.- Getxoko Udal Egoitzako Lanpostuen Zerrenda eta Plantilla Organikoaren aldatzeko proposamena: lanpostuak amortizatzea**

Presidenteak adierazi du bakarkako gelak gehitzeak egoiliar kopurua murriztea ekarriko lukeela, aurrez hainbatetan azaldu den moduan. Pausoz pauso egitea erabaki zen, 4-5 urteko prozesu baten bidez. Hori guztia Bizkaiko Foru Aldundiarekin hitz eginda dago, eta egoitzako langileei ere jakinarazi zaie, bai langileekin zuzenean bilerak eginez, bai enpresa komiteari jakinarazita.

Presidenteak dio egoitzan bizi diren pertsonengan pentsatzen ari direla uneoro, obrei, bakarkako gelei, langileen formakuntzari zein eredu aldaketari dagokionez. Hori guztia hasieratik jakinarazi den proiektu baten parte da. Hori dela eta, GUKeko Susana Andollori eskatu dio etengabe ezeren berri eman ez zaiela esateari uzteko. Beste gauza bat da proiektua ez badute ulertu edo ez badatoz proiektuarekin bat. Errealitatea da horrekin lotutako ezer ez dutela onetsi.

GUKek dio ez dietela epeen berri ematen, beste batzuetan abstenitu egin direla, erabiltzaile kopurua bera dela eta bost lanpostu amortizatu nahi direla (horrek ekarriko lukeen gainkargarekin), gauez hiru pertsona soilik daudela, erabiltzaileak ez daudela behar bezala zainduta, aldundiaren eskuduntzako egoiliar kopurua 75era murriztu behar zela esan zela baina aldundiarekin dugun hitzarmena 99koa dela, eta abar. Guztiz desorekatuta dago dena. Zaintza prekarioago egiten da, lana ere bai, eta murrizketak egiten dira. Ez dira proiektuaz fio, informazioa falta delako eta ez direlako epeak aurkeztu.

Kudeatzaileak hitza hartu du eta esan du erabiltzaile kopurua ez dela bera. Hasieran 138 geneuzkan, eta gaur egun 104 dauzkagu; hau da, 34

**22 Propuesta de modificación de la Relación de Puestos de Trabajo y de la Plantilla Orgánica de la Residencia Municipal de Getxo: amortizaciones.**

La Presidenta señala que, como ya se ha explicado en otras ocasiones, el aumento de las habitaciones individuales supondría una reducción del número de residentes. Se optó por hacerlo de manera paulatina en un proceso de 4-5 años. Todo ello está hablado con la Diputación Foral de Bizkaia, así como informado a los/as trabajadores/as de la Residencia a través de reuniones directas con el personal así como también al propio Comité de Empresa.

La Presidenta dice que en todo momento se está pensando en las personas que están viviendo en la Residencia: las obras, las habitaciones individuales, la formación del personal, el cambio de modelo. Todo forma parte de un proyecto del cual se ha informado desde el principio. Es por ello que insta a Susana Andollo de GUK que deje de decir continuamente que no se les ha informado de nada. Otra cuestión será que no hayan comprendido el proyecto o que no lo compartan. La realidad es que no han aprobado nada relacionado con el mismo

Desde GUK dicen que no se les informa de los plazos, que en otras ocasiones se han abstenido, que el nivel de personas usuarias es el mismo y se pretende amortizar cinco plazas con la sobrecarga que ello supondría, que solo hay tres personas de noche, que las personas usuarias no están cuidadas correctamente, que se dijo que se iban a bajar el número de residentes forales a 75, pero tenemos un Convenio con Diputación de 99, etc.. Todo está totalmente descompensado. Se precarizan los cuidados, se precariza y se recorta. Desconfian del proyecto porque hay falta de información y no se han presentado los plazos.

La Gerente interviene explicando que el nivel de usuarios no es el mismo. Que partíamos de 138 y actualmente tenemos 104, es decir, 34 personas

erabiltzaile gutxiago. Amortizazioak 2017an eta 2018 hasieran erretiratu ziren pertsonenak dira, bai eta langile baten 2017ko ezintasun iraunkor osoa ere. Gertaera horiek guztiak kontuan izan dira 2018ko egutegiak planifikatzeko, bai eta Bizkaiko Foru Aldundiarekin sinatutako hitzarmenaren baitan dauden egoiliarren kopurua ere. Gauei dagokienez, azaldu du lehenago hiru klinika laguntzaile soilik zeudela. Geroago, laura handitu zen kopurua, eta gaur egun berriz ere jaitsi da, egoiliar kopurua jaitsi delako. Administrazio Sailari dagokionez, adierazi behar da gaur egun administrari bat dagoela astelehenetik ostiralera, eta hiru administrari laguntzaile astelehenetik igandera. Horiek goizeko eta arratsaldeko txandatan daude, administrazioko zereginak egiteko, asko dira eta. Sail honen lan karga oso handia da, eta horregatik dago aurrez proposatutako lanpostu berria sortzeko beharra.

usuarias menos. Que las amortizaciones son de personas que se jubilaron en 2017 y a principios de 2018, así como la incapacidad permanente total de una trabajadora en 2017. Todos esos acontecimientos se han tenido en cuenta a la hora de planificar los calendarios de 2018, así como el número de residentes dentro del Convenio con Diputación Foral de Bizkaia. Con respecto a las noches, explica que hace tiempo había tan sólo tres auxiliares de clínica. Posteriormente se amplió a cuatro y actualmente se ha vuelto a bajar porque ha descendido el número de residentes. Con respecto al Departamento de Administración, señalar que actualmente hay un administrativo de lunes a viernes y tres auxiliares administrativos de lunes a a domingo en turnos de mañana y tarde para realizar todas las taresa administrativas que no son pocas. La carga de este departamento es muy grande, de ahí la necesidad de la creación del muevo puesto de trabajo planteada anteriormente.

Kudeatzaileak adierazi du iaz 91tik 105era handitu zela, aldundiaren ezohiko erregularizatzearen eta Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren prestazio eta zerbitzuen zorroari buruzko urriaren 6ko 185/2015 Dekretuaren ondorioz. Azken horrek administrazio bakoitzaren eskuduntzak ezartzen zituen. Aurtengo hitzarmena 99ra murriztu da. Lehenago 138 egoiliar genituen, baina gehienak aldundiaren eskuduntzakoak ziren, askok udal plazak okupatzen zituzten arren. Orain aldundiaren eskuduntzako plaza gutxiago ditugu, eta handitu egin da I. graduko pertsonen arreta. Horiek udalaren eskuduntzakoak dira. Laster I. graduko 26 pertsonari zerbitzua eman ahal izango diegula aurreikusten dugu, eguneko arreta zerbitzuaren bitartez edo etxebizitza komunitarioaren bitartez.

La Gerente señala que el Convenio del año pasado se aumentó de 91 a 105, consecuencia de la regularización extraordinaria de Diputación y del Decreto 185/2015, de 6 de octubre, de cartera de prestaciones y servicios del Sistema Vasco de Servicios Sociales, que establecía las competencias de cada Administración. El Convenio para este año se ha reducido a 99. Antes teníamos 138 residentes, pero la mayoría eran de competencia foral, aunque muchos ocuparan plazas municipales. Ahora tenemos menos residentes forales y se ha aumentado la atención a las personas de Grado I que sí son competencia municipal. Se estima que pronto podremos dar servicio a 26 personas de Grado I, bien a través del Servicio de Atención diurna, bien a través de la vivienda comunitaria.

EH BILDUk dio jaso dutela proiektuaren informazio orokorra, baina salatu du ez dutela jaso informazio zehatzik gai honi buruz erabaki bat hartzeko. Ez dakite nola gauzatuko den, pertsonengan nola eragingo duen, zenbat plaza amortizatzeko asmoa dagoen... Informazio hori ez daukate, eta eduki nahi lukete, landu ahal izateko. Horregatik emango diote ezezko botoa lanpostuen amortizazioari. Egoitzako CCOO sindikatuaren idatzi bat irakurri

EH BILDU dicen que sí han recibido información general del proyecto, pero denuncian que no han recibido información detalladada para poder decidir esta cuestión. No saben cómo se va a concretar, cómo va a afectar a las personas, cuántas plazas hay intención de amortizar, ... Eso es lo que no tienen, y les gustaría tener esa información por escrito para poder trabajarla. Es por ello que votarán que no a la amortización de

Getxo
UDAL EGOITZA
RESIDENCIA MUNICIPAL

Ormetxe, 22
48992 GETXO (Bizkaia)
Tf. 94 403 47 40 - 94 491 04 99
Faxa: 94 403 47 41

dute.

los puestos de trabajo. Pasan a leer un escrito del sindicato CCOO de la Residencia.

Presidenteak proposamena bozkatzeko agindu du, eta handik honako emaitza hau atera da: EAJ-PNVren aldeko sei boto, PSEren aldeko beste bat, PPren 3 abstentzio, EH BILDUren kontrako 3 boto, GUK-GETXOren kontrako 3 boto eta CIUDADANOSen abstentzio bat.

La Presidenta somete a votación la propuesta que obtiene el siguiente resultado: 6 votos a favor del PNV, 1 voto a favor del PSE, 3 abstenciones del PP, 3 votos en contra de EH BILDU, 3 votos en contra de GUK-GETXO y 1 abstención de CIUDADANOS.

Horren ondorioz, eta presidenteak hala proposatuta, gehiengo batez honako hau erabaki da.

En consecuencia, y a propuesta de la Presidenta, se acordó por mayoría el siguiente

ERABAKIA

**ACUERDO**

**LEHENENGOA.-** Aldatzea Getxoko Udal Egoitzako lanpostuen zerrenda eta plantilla organikoa, eduki honekin:

**PRIMERO.-** Modificar la Relación de Puestos de Trabajo y Plantilla orgánica de la Residencia Municipal de Getxo con el contenido que se expresa a continuación:

**LANPOSTUEN ZERRENDA:**

**RELACIÓN DE PUESTOS DE TRABAJO:**

.- 37. lanpostua, Klinikako Laguntzailea, amortizatzea, C2 sailkapen taldearen barruan, 2. hizkuntza-eskakizunarekin, lanpostua okupatzen zuen pertsonari erabateko ezgaitasun iraunkorra eman ziotelako.

.- Amortizar el puesto nº 37 de Auxiliar de Cínica dentro del grupo de clasificación C2, con perfil lingüístico 2, por incapacidad permanente total de su ocupante en 2017.

.- 43. lanpostua, Klinikako Laguntzailea amortizatzea, C2 sailkapen taldearen barruan, 2. hizkuntza-eskakizunarekin, lanpostua okupatzen zuen pertsona 2018ko martxoaren 21ean erretiratu zelako.

.- Amortizar el puesto nº 43 de Auxiliar de Clínica dentro del grupo de clasificación C2, con perfil lingüístico 2, por jubilación de su ocupante el pasado 21 de marzo de 2018.

.- 48. lanpostua, Klinikako Laguntzailea amortizatzea, C2 sailkapen taldearen barruan, 2. hizkuntza-eskakizunarekin, lanpostua okupatzen zuen pertsona 2018ko abuztuaren 14an erretiratu zelako.

.- Amortizar el puesto nº 48 de Auxiliar de Clínica dentro del grupo de clasificación C2, con perfil lingüístico 2, por jubilación de su ocupante el pasado 14 de agosto de 2017.

.- 54. lanpostua, Klinikako Laguntzailea amortizatzea, C2 sailkapen taldearen barruan, 2. hizkuntza-eskakizunarekin, lanpostua okupatzen zuen pertsona 2018ko urtarrilaren 21ean erretiratu zelako.

.- Amortizar el puesto nº 54 de Auxiliar de Clínica dentro del grupo de clasificación C2, con perfil lingüístico 2, por jubilación de su ocupante el pasado 21 de enero de 2018.

.- 66. lanpostua, Klinikako Laguntzailea amortizatzea, C2 sailkapen taldearen barruan, 2. hizkuntza-eskakizunarekin, lanpostua okupatzen

.- Amortizar el puesto nº 66 de Auxiliar de Clínica dentro del grupo de clasificación C2, con perfil lingüístico 2, por jubilación de su ocupante el


• administrazioa.egoitza@getxo.eus • http://www.getxo.eus • C.I.F.: P-9805302-H

zuen pertsona 2017ko maiatzaren 3an erretiratu zelako.

pasado 3 de mayo de 2017.

**PLANTILLA ORGANIKOA**

PLANTILLA ORGANIKOAREN AMORTIZAZIOAK: LANGILEAK

1. Klinika Laguntzailea, 2017ko maiatzaren 3an erretiratu zena.
2. Klinika Laguntzailea, 2017ko abuztuaren 14an erretiratu zena.
3. Klinika Laguntzailea, 2017ko azaroaren 3an erabateko ezgaitasun iraunkorra eman zaiona.
4. Klinika Laguntzailea, 2018ko urtarrilaren 21ean erretiratu zena.
5. Klinika Laguntzailea, 2018ko martxoaren 21ean erretiratu zena.

**PLANTILLA ORGÁNICA**

AMORTIZACIONES PLANTILLA ORGÁNICA: PERSONAL LABORAL

1. Auxiliar de Clínica cuya jubilación se produjo el 3 de mayo de 2017.
2. Auxiliar de Clínica cuya jubilación se produjo el 14 de agosto de 2017.
3. Auxiliar de Clínica cuya incapacidad permanente total se produjo el 3 de noviembre de 2018.
4. Auxiliar de Clínica cuya jubilación se produjo el 21 de enero de 2018.
5. Auxiliar de Clínica cuya jubilación se produjo el 21 de marzo de 2018.

**BIGARRENA.**- Lanpostuen zerrenda berria eta plantilla organikoa osorik argitaratzea Bizkaiko Aldizkari ofizialean.

**SEGUNDO.**- Proceder a la publicación de la nueva Relación de Puestos de Trabajo y plantilla orgánica completas en el Boletín Oficial de Bizkaia.

**23.- 2018ko uztailaren, abuztuaren eta irailaren egoiliarren erroldaen berri ematea**

**23.- Dación de cuentas del Padrón de residentes correspondiente a julio, agosto y septiembre de 2018**

| | (2018/07/01) EKAINEKO ERROLDA / PADRÓN DE JULIO (01/07/2018) | | | |
|---|---|---|---|---|
| HILABETEA / MES | Aurreko errolda / Padrón inicial | Sarrerak / Ingresos | Bajak / Bajak | Guztira / Total |
| **Udal plazak // Plazas municipales** | 18 | | | 18 |
| **DFB // A.E.I. DFB** | 04 | | 1 | 3 |
| **GUZTIRA / TOTALES** | **22** | | **1** | **21** |

Ormetxe, 22
48992 GETXO (Bizkaia)
Tf. 94 403 47 40 - 94 491 04 99
Faxa: 94 403 47 41

| | (2018/08/01) ABUZTUKO ERROLDA / PADRÓN DE AGOSTO (01/08/2018) | | | |
|---|---|---|---|---|
| **HILABETEA / MES** | **Aurreko errolda / Padrón inicial** | **Sarrerak / Ingresos** | **Bajak / Bajak** | **Guztira / Total** |
| **Udal plazak // Plazas municipales** | 18 | 1 | | 19 |
| **DFB // A.E.I. DFB** | 3 | | | 3 |
| **GUZTIRA / TOTALES** | **21** | | | **22** |

| | (2018/09/01) IRAILEKO ERROLDA / PADRÓN DE SEPTIEMBRE (01/09/2018) | | | |
|---|---|---|---|---|
| **HILABETEA / MES** | **Aurreko errolda / Padrón inicial** | **Sarrerak / Ingresos** | **Bajak / Bajak** | **Guztira / Total** |
| **Udal plazak // Plazas municipales** | 19 | 1 | | 20 |
| **DFB // A.E.I. DFB** | 3 | | | 3 |
| **GUZTIRA / TOTALES** | **22** | | | **23** |

| | BESTE PLAZARI BURUZKO INFORMAZIOA / INFORMACIÓN SOBRE OTRAS PLAZAS UZTAILA-ABUZTUA-IRAILA / JULIO-AGOSTO-SEPTIEMBRE | | | |
|---|---|---|---|---|
| **HILABETEA / MES** | **Hasiera / Inicio** | **Sarrerak / Ingresos** | **Bajak / Bajak** | **Guztira / Total** |
| **BFA HITZARMENA / CONVENIO DFB** | 95 | 3 | 6 | 92 |
| **GUZTIRA / TOTALES** | 95 | 3 | 6 | 92 |

**24.- Informazio orokorra**

Presidenteak jakinarazi du obrak udan hasi zirela. Bigarren solairua dagoeneko amaituta dago, hirugarrena ere amaitzear da, eta laster laugarrenarekin hasiko dira. Kontratuaren arabera, azaroaren amaierarako amaitzea aurreikusten da.

**24.- Información general**

La Presidenta informa de que las obras ya comenzaron en verano. La segunda planta está ya acabada, se está terminando la tercera y próximamente empezarán con la cuarta planta. La finalización está prevista para finales de noviembre según contrato.

**25.- Erreguak eta galderak**

GUKek egoitzaren berrantolaketari buruz galdetu du ea plazak nola geldituko diren. Kudeatzaileak

**25.- Ruegos y preguntas**

Desde GUK preguntan por la reorganización de la Residencia, sobre cómo van a quedar las plazas.



• administrazioa.egoitza@getxo.eus • http://www.getxo.eus • C.I.F.: P-9805302-H

azaldu du aldundiaren eskuduntzako plazak murriztu egingo direla oraindik zehazteke dagoen kopuru batera (taldeen beharren arabera zehaztuko da), baina 74 plaza inguru izango direla. Horrez gain, azaldu du udal plaza kopurua handitu ere egingo dela; hala, 26 izatera pasako lirateke (12 eguneko arreta zerbitzukoak eta 14 etxebizitza komunitariokoak). 100 plaza guztira.

La Gerente explica que se bajarán las plaza forales hasta un número aproximado que todavía está por determinar dependiendo de las necesidades de los equipos, pero que estariamos hablando de alrededor de 74 plazas forales. Y que por otro lado, habría un aumento de plazas municipales que pasarían a ser de 26, 12 del Servicio de Atención Diurna y 14 de la Vivienda comunitaria. En total 100 plazas.

Presidenteak berriz ere azaldu du eskuduntzen banaketa eta zerbitzuen zorroaren arabera Getxoko Udalari dagokion plaza kopurua.

La Presidenta vuelve a explicar el reparto competencial y el número de plazas que por cartera de servicios corresponde al Ayuntamiento de Getxo.

Aztertzeko gai gehiagorik ez dago, eta batzarra goian adierazitako eguneko 15:50ean bukatu da. Beraren emaitzarekin akta hau egin da. Aktaren edukiaren fede ematen dut, Kontseiluko idazkari naizen aldetik.

No habiendo mas asuntos que tratar, se levantó la sesión a las 15:50 horas del día de la fecha señalada en el encabezamiento, extendiéndose con su resultado la presente Acta, de cuyo contenido doy fe, como Secretaria del Consejo.

Getxo
UDAL EGOITZA
RESIDENCIA MUNICIPAL

**PRESIDENTEA**
**LA PRESIDENTA**

**IDAZKARIA**
**LA SECRETARIA**